ENVÍO POSTAL SIN DIRECCIÓN

SOCIALISTAS Donostiarras

GRUPO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

Nº5 - DICIEMBRE 2015




Ernesto Gasco

# SOZIALISTOK AMARA BERRIRAKO AGINDUTAKOA BETETZEN DUGU

*Aspalditik berritzeko zeuden Amara Berriko hiru plazatan, aurki, berrurbanizazio-lanak egingo dira eta bertako elementuak berrituko dira, amaratarrentzako, oro har, erakargarriagoak eta erabilgarriagoak izan daitezen.*

*Merkatari plaza, Etxeberritarren plaza eta Kofradien plaza dira. Donostiako Udalak, Bide Publikoak Sailaren eta Hiri Mantentze Sailaren bitartez, jada eskatu ditu gai honi lotuta aurki udal-gobernuak onartuko dituen proiektuak.*

*Ernesto Gasco Donostiako Sozialisten bozeramaileak gogoratu du "hiru plaza hauen egoera hobetzeko Amara Berriko bizilagunak aspalditik egiten ari ziren eskaeraren aurrean hartutako konpromiso politiko eta pertsonala dela. Ingurunea baldintza egokitan edukitzea merezi duten donostiar hauei zor zaiena ematea da."*

*Obrek, guztira, 750.000 euroko aurrekontua dute. "Oso ondo justifikatutako inbertsioa", Ernesto Gascoren hitzetan.*

# LOS SOCIALISTAS CUMPLIMOS CON AMARA BERRI

Próximamente, tres de las plazas de Amara Berri que estaban pendientes de renovación desde hace años llevarán adelante un proceso de reurbanización y puesta al día de sus elementos para hacerlas más atractivas y útiles para el conjunto de los amaratarras.

Se trata de las plazas de Mercaderes, Los Etxeberri y Cofradías. El Ayuntamiento de San Sebastián, a través de los departamentos de Vías Públicas y Mantenimiento Urbano ha encargado ya los correspondientes proyectos que, próximamente, serán aprobados por el gobierno municipal.

El portavoz de los Socialistas Donostiarras, Ernesto Gasco, ha recordado que "era un compromiso político y personal con el vecindario de Amara Berri que nos venía demandando desde hace tiempo que diésemos la vuelta a la situación de estas tres plazas. Es hacer justicia con estos vecinos y vecinas donostiarras que merecen tener un entorno en condiciones."

La obra tiene un presupuesto total de 750.000 euros. "Una inversión más que justificada", en palabras de Ernesto Gasco.

PSE-EE PSOE

## 1/ PLAZA DE LOS MERCADERES

En esta plaza, la primera si se accede desde la zona de la subdelegación de gobierno, se suprimen las pérgolas existentes, generando una zona más amplia para la creación de un gran espacio de estancia con bancos para el descanso y disfrute del vecindario. Además, la zona deportiva renueva su pista de rodadura para bicicletas o patines e incluye en su interior un pequeño campo con miniporterías para la práctica del hockey u otros deportes. La plaza se completará con una gran zona infantil con columpios, estructuras con txirristra y balancines y juegos pintados de diferentes colores en el suelo. Se mantienen zonas verdes con plantas y se suprimen los desniveles en las aceras, creando pendientes para el tránsito de personas.






## *1/ MERKATARI PLAZA*

*Gobernu-azpiordezkaritzaren aldetik joanez gero lehendabizi topatuko dugun plaza honetan gaur egun dauden pergolak kenduko dira. Horrela, bizilagunek gozatzeko eta atseden hartzeko bankuak izango dituen egoteko gune zabal handi bat sortuko da. Gainera, kirolguneko bizikleta edo patinentzako pista berrituko da eta, honen erdian, hockey-ra edo beste kirol batzuetara jokatzeko zelaitxo bat egingo da ate txiki batzuekin. Plazan, gainera, haurrek jolasteko gune zabala eraikiko da; bertan zabuak, txirristak eta kulunkak, eta lurrean hainbat koloretan margotutako jokoak jarriko dira. Gaur egungo berdeguneak eta bertan landareak mantenduko dira, eta espaloietako koskak kendu eta aldapak ipiniko dira pertsonak bertatik igarotzeko.*






## 2/ PLAZA DE LOS ETXEBERRI

Se mantienen las pérgolas existentes y que dan identidad a la plaza. Se negociará con los usuarios del parking la sustitución del actual acceso peatonal que se ha quedado obsoleto y no ofrece una buena imagen, sustituyéndolo por otro acristalado. Se mantiene la zona verde y de estancia frente a la escultura de Tomás Hernández Mendizabal y se crean zonas de juegos infantiles y una gran área para el ejercicio físico de personas de la tercera edad, con diversos elementos para el mantenimiento de abdominales, flexiones y lumbares.

## 2/ *ETXEBERRITARREN PLAZA*

*Bertan dauden eta plazari nortasuna ematen dioten pergolak ez dira kenduko. Aparkalekuko erabiltzaileekin zaharkituta geratu den eta itxura eskasa duen oinezkoen sarrera ordezkatzea negoziatuko da. Sarrera honen ordez beiraz hornitutako bat ipiniko litzateke. Tomas Hernandez Mendizabalen eskulturaren aurrean dagoen egoteko gunea eta berdegunea bertan utziko dira, eta haurrek jolasteko guneak eta adinekoek ariketa fisikoa egiteko eremu zabala ipiniko dira, abdominaletarako, flexioetarako eta ariketa lunbarretarako hainbat elementu jarriz.*









## 3/ PLAZA DE LAS COFRADÍAS DONOSTIARRAS

En esta plaza, "la del fondo, la de Mutualidades" como algunos la llamaban en el barrio, la actuación prevista dará paso a una plaza con pista deportiva al aire libre para la práctica del basket, zonas de juegos infantiles con suelo de goma y zona de estancia manteniendo el arbolado, especialmente la morera que preside la misma, y los bancos, junto a los que aparecerán elementos para el ejercicio físico de las personas mayores, como corredores aéreos, bicicleta estática, y una rueda de estiramientos. Habrá, también, una mesa para la práctica del ping pong y aparcabicis. Otra de las mejoras será eliminar los escalones y desniveles en la plaza mediante pendientes accesibles.

## 3/ KOFRADIA DONOSTIARREN PLAZA

*Auzotar batzuek "bukaerakoa, Mutualidadesekoa" deitzen zuten plaza honetan saskibaloira jokatzeko aire libreko kirol-pista, haurren jolaserako gomazko lurzorua edukiko duen gunea eta atsedengunea ezarriko dira. Zuhaitzak –plazan nagusi den masustaarbola batez ere– eta bankuak ez dira kenduko. Banku horien ondoan adinekoek ariketa fisikoa egiteko elementuak ipiniko dira, hala nola, korridore zintzilikatuak, geldikako bizikleta eta luzapenetarako gurpila. Ping-pong jokatzeko mahai bat eta bizikletak lotuta uzteko leku bat ere jarriko dira. Gainera, plazan dauden eskailera-mailak eta desnibelak kendu eta errazago igotzeko aldapatxoak ipiniko dira.*



socialistasguipuzcoanos.com